

Hizpideak

Gihar ariketak Bilbon

Xabin Makazaga
xmakazaga@berria.info

Jende oldea bildu zen atzo Bilboko kaleetan, eskubide zibil eta politikoen eta giza eskubideen alde. Irailaren 11n egitekoa zen manifestazioaren debekuari erantzuteko deitu zuten jendea berriro Bilbora, eta, bizi dugun une politikoa benetan garrantzitsua dela jakitun, egoera iraultzeko gihar ariketa ere izan zen Bilboko manifestazioa.

Aterabide demokratikoa bide baketsuen bidez gauzatu nahi duten eragile batzuk ados jarri dira, eta atzera buel-

tarik izan behar ez lukeen ibilbidea marraztu dute Gernikako adierazpenean.

Baldintzak gorabehera, ETAK ere agertu du prestutasuna su-etenetik haratago joateko. Beste muturrean, berriz, estatu aparatuko jo eta su dabil-tza. Ekinen eta Askapenaren aurkako operazioekin, giroa gaiztozu nahi izan dute. Bateko tortura salaketek eta beste-ko protokoloak erakusten dute Estatu nahierara ari dela jokatzeko.

Egoera iraultzeko, ekimen erakitzaileak izateaz gain, prozesua zapuztu nahiko duten indarrei ere egin beharko zaie aurre. Eta, pazientziatz gain, gihar sendoa beharko da.



Hitz beste
Anjel Lertxundi

Izeberga

Martin Auzmendik Euskadi Irratian: «Jakin badakigu indarrean dugun modeloak ez duela iraungo, baina inork ez du aldatu nahi». Egutero ikasten ari gara: inork pausotxo bat eman orduko, tresabira itzularaziko dute (itzularazten dugu, erruak beti kanpokoari egotzeko bizioak gaixo baidin bagauzka ere). Baina kontua da krisiari ez badiogu aurpegi ekonomikoa baino ikusten, ez garela ezta krisi ekonomikotik ere irten. Modelo osoa dago hondoa jota, ekonomiarena ez da modelo oso baten porrot sekulakoaren adierazlea besterik, modeloa- ren zutabe guztiak daude eta kolokan: gauzen jabetza helburu, gainerako guztia jabetzaren (eta haren ondorio ezinbestekoa den kontsumoaren) aldia sakrifika- tzen dugu.

Jakin, denok dakigu sobra ere zulotik nola irten litekeen, badakigu sobra ere ekonomiarena ez dela gaixotasun larriago baten izeberga baino: ez dugu aldatu nahi, horixe benetako krisia.

Adur



Zientzia eta mapak

Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegil'

Idazlea

Euskaraz idatzitako liburuen maila gorantz doa etengabe. Batzuk zuzenean euskaraz zehazki idatziak dira. Beste batzuk, berriz, euskal itzulpen bikainak dira.

Euskal mundutik at bizi den jendeak (fransesak, espainiar- rrak), are Euskal Herriko erdal elebakar analfabetoak ere, ez dira euskal hizkuntzak lortuta- ko mailaz jabetzen.

Joxe Azurmendik sarritan esan izan duenez, euskaraz agertutako obra asko benetan interesgarriak dira.

Euskal Unibertsitatean, El- huyar Elkarteak, Gaik sortan, antiz ikasgutan, liburu bikai- nak argitaratzen dira euskaraz.

Baina euskararen hazkunde

miresgarri horretatik at bizi di- renak irmo daude beren eleba- kartasun analfabeto harropu- tzean.

Batzuk ingelesaren balioaren aitzakian, zokoratu egin nahi dute: «*El vascuence no pasa de ser una jerga anticuada para andar por casa*».

Orain dela hilabete batzuk, Elhuyarrek argitaratutako *Zientzia eta Teknologiaran hiz- tegi entziklopedikoa* (2009) erosi nuen. Liburu bikaina. 1.836 orrialdeko liburu trinkoa da. Aurrerapauso gaizta. Tresna aparta.

Eta aste hauetan, Euskal He- rriko Unibertsitateak argitara- tutako *Fisika* liburukotea (2008) ezagutu dut. Mardula, ze- hatza, orokorra. 1.360 orrialde ditu. Ingeniaritza ikasi nahi duen nire biloba batek erakutsi zidan.

Gure garaiko bi tomoko *Pe- rucca* urdin hura lekutan geldi- tu da. Besteak beste, mende erdi honetan Fisikak erruz aurtera- tu duelako.

Oraingo *Fisika* hori hiru fisi- kari atzeritarrak prestatu dute: Fishbane, Gasirowicz eta Thornton; AEBetako Virginia eta Minnesotako unibertsitate- tan irakasle.

Ezin hobeki euskaratu dute EHUko gure fisikari ezagunek: Plazaola, Pitarkek, eta bes- tek.

1950-1960 urteetan (nik Bilbo- ko Eskolan ikasketak egin ni- tuenean) ez genuen sumatu ere egin gaur gure hizkuntzak iri- tsiko zuen maila.

Artean, ordea, ikuskari ne- gargarria ematen digute Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako go- bernuak.

Baskongadetako Lendaca- riak (Madrileko agintarien al- derdikide eta morroi leialak) oza- oza irakurtzen ditu aurre- tik prestatutako esaldi batzuk (euskaidunoi nekez ulergarri).

Eta Euzkadi = *Provincias Vas- congadas* ekuazio faltsua irriga- rri agertzen da.

ETBn asetu ere arte erakus- ten digute, eguraldiaren mozo-

roan, mapa bitxi eta arkaiko bat. «*Jrurac bat*» garaiko mapa baita. Nahiz Baskongadetarako kolore horriak erabili, ez dugu geure mapa ezagutzen.

Eta Josu Iraetak egokiro sala- tu duenez, azkenean *Euskadi* hitzak zer adierazten duen ez dakigu. «*Región Noroña Espa- ñola*» agian?

Zenketen albisteek, Alber- to Surrioren eskutik, egutero- egutero hartzen dute denbora luzea telesaiotetan. Zergatik? Eusko Jaurlaritza honetako ei

Euskadi, abertzaleontzat, Euskal Herriari datxekion Euskal Estatua da. Euskadi Ta Askatasuna ez da inoiz izan 'Provincias Vascongadas y Libertad'. Baina Patxi Lopez entzunda, Euskadi zer den ez dakigu. Edo, hobeki esan, badakigu

Fiesta Nacional delakoa gusta- tzen zaielako.

Jo-eta-ke, azkar, Euskal Kul- tura *cultura vascongadilla* bihurtu nahi dute. «*No hay tiempo que perder. Tenemos cuatro años para españolizar todo*».

Abertzaleon «Gora Euskadi Askatuta!» hura, pixkanaka, «*Vivan las Provincias Vascon- gadas!*» bihurtu nahi dute.

Euskadi, abertzaleontzat, Euskal Herriari datxekion Eus- kal Estatua da.

Euskadi Ta Askatasuna ez da inoiz izan *Provincias Vascong- das y Libertad*.

Baina Patxi Lopez entzunda, Euskadi zer den ez dakigu. Edo, hobeki esan, badakigu. Baina dagokionak beste izen bat mere- zi du. Eta hemen, Artemio Zar- coz oroitzen naiz, Elizari buruz ari zelarik, «*se me han acabado los calificativos*» aitortu zuene- an. Guri gauza berbera gerta- tzen zaigu: Lopez eta Sanz anal- fabetoek buruz idatzen dugune- an, ahulezia nabaritzen dugu geure hiztegiari.

Zientzia eta Politika elkarren- gandik horren urtun agertzea... adierazgarria da oso.

Sanz eta Lopez bi analfabeto *quising* dira.

Garbi.